KILOMETROAK 2007 >






“Dena aurreikusitako moduan atera da eta hori da seinalerik onena”, aitortu zuten antolatzaileek.

**JENDETZA** Bazkalaurrerako, jada, lepo zeuden gune gehienak, Labegaraieta kiroldegian kokatutakoa eta Artabila, batez ere. Orduan hasi ziren kontzertu eta ekitaldi nagusiak. Anje Duhalde, Pantxoa eta Peio, Txan Magoa eta Betizuek, bereziki, ikusmina sortu eta gazte eta ume gehien bildu zituzten ordu horretan.

Ordurako, Aranzadi ikastola hartzen duen Erret Seminarioan bertan herri bazkaria prest zuten beste hainbat lagunentzat. Beste batzuek, ordea, ibilbidean zehar prestatutako oilaskoa edo bokatak nahiago izan zituzten, aukeran. Eta bazkalostea heldu eta familia asko etxerako bidean zeudenean, gazteek hartu zuten festarekin jarraitzeko ardura. Esne Beltza, Kauta, Emon eta EH Sukarra taldekoek jarri zuten musika taula gainean eta Kilometroetara gerturatutakoek saltoka erantzun zuten.

Aranzadi ikastola Bergarako herriak sortu zuen, eta gerora begira bere 700 ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaintzen jarraitzeko laguntza eske herriari dei egin zion atzo. Bergararrrek ez zuten hutsik egin –urtebete zeramaten lanean guztia prest izateko–, eta zazpi lurraldeetatik gerturatutakoek, ere ez. “Oso-oso pozik gaude”. Beste hitzik ez zuten Aranzadiko antolatzaileek.



**FESTA NONAHI** Goian, ezkerrean, ibilbidea egiten ari ziren familia batzuk, seme-alabekin. Goian, gazte batek, aurtengo Kilometroetako logoa aurpegian marraztuta dauka eta ume bati ikurrina marrazten dio. Behean, Betizuen ikuskizunean bildutako gaztetxoak adi-adi taulara begira. ARGAZKIAK: I. AZURMENDI











